



Independentzia bai, baina orain edo geroxeago?

INORK ez daki zer gerta litekeen une zehatz batean Kataluniako independentzia prozesuan, baina oraingoan esan liteke gertatutakoa eszenatoki aurreikusienetako bat zela: ez da azaroaren 9ko lehen kontsulta egingo —Madrilek debekatutakoa—, hauteskundeak aurreratuko dira eta hauei plebiszitu izaera emango zaie.

Eskema zabal horretan, alabaina, badira ezusteak, konfiantza ezak, alderdi lehiak eta noraeza puntu bat, apurka bideratzen joango direnak. Batetik, Artur Masek maukapetik atera du erreferendum alternatiboa eta zerrenda soberanista bateratu bat eskatu du hauteskundeetarako, ERCk egiten dion markajeari eutsiz. Baina Oriol Junquerasen alderdiak hor jarraituko du Mas soka motzean lotu guran; bestelakoa da lortuko duen.

Badirudi Masek aukera zentzuzkoenari heldu diola orain: batetik, Espainiaren erreakzioa saihestu eta hari erreferendum alternatiboarekin beste erronka bat jarri mahai gainean; ERCren presioari eutsi eta hau —oraindik zehaztu gabeko— zerrenda bateratu batera bultzatu. Bere alderdiari inkestek ematen dizkioten datu txarrak dira bere ahuldadea eta, alde horretatik, egin ahalak egingo ditu ERCrekin batera aurkezteko, bai honekin koalizio zuzena egin ez bai zerrenda independentista zabala medio. Bietan badirudi bera litzatekeela zerrenda buru.

Horrek guztiak arnasa emango lieke Masi eta CDCri, baina ez ERCren presioa gainetik kentzeko beste, azken finean, molde batean edo bestean independentismoaren presioa handia da eta. ERCrenaz gain, joan den igandean ANC eta

Omnium Culturalek hiru hileko epean hauteskundeak deitzeko eskaera norabide berean doaz.

Hauteskundeetara nola aurkeztu giltzarri da plebiszitu horretan independentziaren aldeko ahalik eta boto gehien biltzeko, baina baita ere programaren oinarria zein den. Independentzia bai, baina nola formulatua? ERCk badaki zer nahi duen: programan argi adieraztea independentziaren aldekoek gehiengoa lortuz gero Kataluniako Legebiltzarrak independentzia aldarrikatuko duela. Eta Masek hori onartuko du? Ez dirudi, are gutxiago gainera jakin gabe zerrenda horrek zer sostengu duen. Masen helburua ez da orain independentzia aldarrikatzea, baizik eta independentismoak argi irabaztea plebiszitua.

Masen helburua ez da orain independentzia aldarrikatzea, baizik eta independentismoak argi irabaztea plebiszitua

Horretarako nahiko izan liteke gisa honetako zerbait formulatzea: “Kataluniaren independentziaren aldekoak gara eta legealdi honetan berau gauza dadin konpromisoa hartuko dugu”. Ez da ahaztu behar Espainian ere aldaketa handiak egon daitezkeela 2015 amaierako hauteskundeen ondoren, eta hor gertatzen dena ere garrantzitsua izan daitekeela Kataluniakoaren garapenerako. Beraz, ordura arte itxaron eta Espainiarekin negoziatu edo, zenbakiak ematen badute, lehenago independentzia aldarrikatu? Badirudi bi joera horien arteko lehia dagoela Kataluniako independen-

tismoan, eta hauteskundeetako emaitzek ere lagunduko dute dilema argitzen.

Lehenago baina, A9ko erreferenduma egin beharko da eta hau ere independentismoaren indarraren neurgailu gisa ikusiko da. Independentismoak ez du beste aukerarik eta ahalik eta indar handiena jarri behar du hau ahalik eta arrakastatsuen izan dadin. Partehartzean egongo da gakoa eta gisa horretako erreferendum batean milioi bat pertsonak parte hartuko balute hauteskundeetarako bultzada itzela litzateke.

Eta hauteskundeetan zer partehartze maila beharko litzateke independentismoaren garaipena argi gera dadin? Teorian, botoemaileen gehiengoa gehi bat, baina zifra batzuen bidez ere ikus liteke zer izan daitekeen zilegi, zer baleko eta zer garaipen handia. 2006an egin zen egungo autonomia estatutuaren erreferenduma, 2.570.000 herritarrek parte hartu zuten bertan (errolaren %48k) eta %73k egin zuen alde eta %20,76k aurka. 2012ko

hauteskunde autonomikoetan CiU, ERC eta CUPeko botoak batuta 1,7 milioira iritsi ziren (%67,7ko partehartzearekin). Oraingo hauteskundeetan askoz gehiago lor dezakete, baldin eta gizarte soberanista ondo mobilizatzen badute. Baina lortu egin behar da eta horretarako soberanismo osoari komeni zaio ahalik eta indartsuen prestatzea A9 erreferenduma. Madrilentzat edozein zifra izango da porrota, baina soberanistentzat termometro bikaina izango da hauteskunde aurreratuei nola aurre egin ondo hausnartzeko. ■

